360/2026 EBAZPENA, ekainaren 1ekoa, Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako zuzendari nagusiarena, "Solaskide 2026-27" programa hezigarriaren deialdia onartzen duena Nafarroako A, B eta D ereduetako ikastetxeetako Bigarren Hezkuntzako 3. eta 4. mailetako, Batxilergoko 1. mailako eta Lanbide Heziketako Oinarrizko eta Erdi Mailako 1. ikasturteko ikasleentzat, 2026-27 ikasturtean.

Eleaniztasunaren eta Arte Ikasketen Zerbitzuak txosten bat aurkeztu du, deialdi hori onartzea proposatzen duena. Gehienez ere 125 elkarrizketa-talde egonen dira, eta 18 saio talde bakoitzeko (horietatik 2 saio koordinaziorako izango dira), 2026-27 ikasturtean.

Programaren helburua da Nafarroako Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetako A, B eta D ereduetako Bigarren Hezkuntzako 3. eta 4. mailetako eta Batxilergoko 1. mailako ikasleen euskaraz hitz egiteko gaitasunaren garapena indartzea, arestian aipatutako 2026-27 ikasturteko eskola-aldietan.

Horretarako, Euskal Hizkuntza eta Literaturako irakasleek taldeko ikasle guztiak banatuko dituzte edo talde osoari hizkuntza aditu batekin batera arreta emanen diote. Banaketa egiteko, taldeak 12 ikasle izango ditu gutxienez. Irakasleak adituarekin batera taldea zaintzen badu, taldea 30 ikaslekoa izango da gehienez ere. Irakaslea ez da inola ere irakaskuntza-ordu horiek ematetik salbuetsiko.

Hezkuntza Departamentuaren egitura organikoa ezartzen duen azaroaren 15eko 245/2023 Foru Dekretuak ematen dizkidan ahalmenez baliatuz, honako hau

EBATZI DUT:

1.- "Solaskide 2026-27" programa hezigarriaren deialdia onartzea, Nafarroako A, B eta D ereduetako ikastetxeetako Bigarren Hezkuntzako 3. eta 4. mailetako, Batxilergoko 1. mailako eta Lanbide Heziketako Oinarrizko eta Erdi Mailako 1. ikasturteko ikasleentzat. Programa 2026-27 ikasturtean egingo da eta ebazpen honen eranskinean dago deskribatuta.

2.- Ebazpen hau eta bere eranskina www.educacion.navarra.es (Hezkuntzako berriak) eta wwww.navarra.es (Tramiteak) helbideetan argitaratzeko agintzea.

3.- Deialdi honen eta berau aplikatzeko administrazio-egintzen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Hezkuntzako Kontseilariari, hilabeteko epean, errekurritutako egintza jakinarazi, argitaratu edo jendaurrean jarri eta hurrengo egunetik aurrera.

4.- Ebazpen hau eta bere Eranskina Eleaniztasunaren eta Arte Ikasketen Zerbitzuari, Hezkuntzako Ikuskapenaren Zerbitzuari eta Euskara Atalari helaraztea, dagozkion ondorioak izan ditzan.

Iruñean, bi mila eta hogeita seiko ekainaren batean.

HEZKUNTZAKO ETA LANBIDE
HEZIKETAKO ZUZENDARI NAGUSIA

Gil Sevillano González